



Kale Berrixa be aldatu dala...

Bai horixe! Konturatuko ziñain, seguruenik, argazkixa nundik atarata dagueen. Ba, garai batian **Naparreneko kantoia** zan inguru hori, Iturmenditarren taberniagatik, jakiña; **Kaionekua** be esaten xakon, taberna parian, Kaio Urtzelai zapatarixak Ota-**dui** etxearen azpikaldian bere taillerra eukalako; **Konfitterueneko kantoia** lez be ezaguna zan, beste ertzian Arrazola-tarren gozotegixa eguelako, eta beste izen batzuk be eballi ziran bidekurtze horretan jarten ziran denda edo negoziuen arabera.

Egixa esateko, kaliaren zabaleria eta kantoiak lehenguak dira; hala ta guztiz be, ezin ukatu argazkixari ondo errepara-

rau bihar izan xaugula ikusi ahal izateko **Kale Berrixaren zatirik zuzenena eta luziena** dala hor agerketan dana. Barren-barrenian igarten dan Txurrukaneko arkupeiak emuten dau hori pentsaitteko bidia. Dana dala, egon da, bai, mudantzarik: **zoruko adokiñak eta albueta espaloiak**, esaterako. Baiña horreik guk geuk be ezagutu dittugu: adokiñak 1960 hamarkadaraino iraun euen; espaloiak, barriz, orain dala urte gutxi kendu zittuain, kalia batez be oiñezkuendako egokittu zanian.

Aldaketarik nabarmenenak etxietan somaitten dira. Eskumakaldeketan ikusten da hori onduen. Erdizka agiri dan lehenengo fatxadiak atian txintxillik dakon bi bizar-ontzixak **barberixia** zala erakusten doskue. Izan be, hortxe jardun eben bizarra eta ulia mozten urte askuan, XX. gizaldiko lehenengo hamarkadetan, **Tiburzio Mendizabalek**. Gerora, gerra inguruan, barberixiari zihero jare barik, **bizikleta-dendia** be ipiñi zan, **alkilerra**, orduan esaten geben moduan. Gure mutiko-denborara orduko bizikletak bakarrik saldu edota alkilaitten ziran. Azkenaldian, barriz, Oñatiko **kirol-dendarik haundixena jarri daue Mendizabaldarrak** Kale Barri eta Patruie kaliaren arteko kantoi horretan.

Hurrengo etxian **Korkostegitarrak** bizi ziran, arotz eta ebanista famauak; **aroztegixa ez eukain bertan, Atzeko kalian baiño**; baiña etxepe horretan jarri eben **Korkostegi-Astigarraga** izeneko soziedade batek 1930 aldera **aparato elektrikuak** (nobedade haundixa orduan) saltzeko dendia. Hirugarren etxia zuztarretik bota ondoren, **Zabor txokolaterixiak** Oñatin euki eben lehenengo fabrika egon zan martxan 1946tik 1966ra arte, Altzibarrera fan ziran bittartian. **Ignazio Egaña** eta Anjel Mendiola oñatiarrak sortu euen.

Aurrekuari erantsita eguen eta dago gaur egun be **Egañatarren panaderixia**, aspaldittik etorrena; Ignazio txokolaterixiarekin hasi zanian, bere anaiak, **Jabierrek, heldu otsan okindegiko negoziuari**. Kanpoko aldetik begiratuta behintzat, etxe hori da, fotografixan datorren irudixarekin konparauta, gutxien kanbixau dana. Bestalde, Atzeko kaleko Eskolatxenuarekin batera, hau izango da familixa berak ogigintzaiari eutsi xauen Oñatiko panaderixia. Hortik beherako etxebizitzan irudixa ezta hain garbixa, aurrea egin ahala estutuaz doia-eta.

Ezkerraldian lehenengua bakarrik agerketan xaku samur samar identifikaitteko moduan: **Naparrena**. XX. gizaldixan **taberna famaua** euki eben Iturmedi familixiak Kale Barri alderako etxepeian; gure denporan **Margarita eta Roxendo tabernari oso popular eta estimauak** izan ziran; hori bai, etxaten Naparrenekuai gorabehera eta arazorik falta izan, 1936ko gerratian eta ondorenian taberniarekin jarraiketako debekua jaso euelako, eta 1950 hamarkadan **etxia erre** egin zalako. Tabernia itxi eta gero, beste negozio batzuk jarri dira lokal horretan; argazki-dendia lehenengo eta arropa-dendia gaur egun.

J. E.

Fotografixia Oñatiko udal artxiboko argazki zaharren fondotik eskuratu dogu. Jexus Mendizabalek samurtu dosku euren dendiarene historixiarene inguruko argibidiak. Milla esker!